

Eusko Jaurlaritzaren proposamena

Moncloaren ezetza

M A H A I - I N G U R U A

- Iñaki Antigüedad
- Xabier Barandiaran
- Garbiñe Biurrun
- Jose Luis Elorza

IRITZIAK

- Ramon Etxezarreta
- Xabier Gurrutxaga
- Ander Iturriotz
- Nekane San Miguel

Ibarretxeren bide orria: Kontsultatik hauteskundeetara

■ Mikel Asurmendi

Mahai-inguruko argazkiak: Judit Fernandez

Ibarretxe lehendakariak 2007ko urrian egin zion akordio politikorako eskaintza Rodriguez Zapatero Espainiako gobernuburuari, Ibarretxeren bide orria deitutako ekimena. Proposamena zenbait urratsek mugarrituta dago. Lehenbizikoa, Eusko Legebiltzarreko osoko bileran zehaztuko da datorren ekainaren 27an. Bi mandatariak bederatzi bider bildu dira dagoeneko Moncloan, maiatzaren 20an azkenekoz. Zapaterok ezezko biribila eman dio Ibarretxeri beste behin ere, Estatuaren marko juridiko-politikoak Konstituzioa sabaia duela esanez. Ibarretxek, berriz, EAEko herritarren erabakitzeke eskubidea mugatu ezina dela erantzun dio. Ibarretxe-Zapatero azken bilera izan aurretik, ARGIAk lau analista politiko bildu zituen Eusko Jaurlaritzaren proposamena nahiz Zapatero presidentearen jarrera aztertzeke. Solasaldiak benetako ordua heldu dela iradoki digu, baita EAEn hauteskundeak laster burutu daitezkeela ere.

Une honetan baldintzarik ikusten al duzue Ibarretxeren bide orria bete eta urriko kontsultara iristeko?

JOSE LUIS ELORZA. Ez. Nik bide orriaren edo prozesuaren bi alde bereiziko nituzke. Bat: ekimenak arazo legalak eduki litzake. Ibarretxek ez ditu kontsultaren xehetasun guztiak eskaini. Inkesta edo kontsulta al da? Antza denez, erreferendum batez ari da, “legal” hitza erabiliz edo ez erabiliz, alde hori kamuflatuz nolana ere. Alde horretatik, prozesuari arazo larriak ikusten dizkiot. Bi: politikoki, gainera, are zailtasun gehiago ikusten diot. Une honetan, honezkero

egoera politikoaren nahaste-borrastean sartuta, prozesu honek herriaren zatiketaren sentrazioa areago sakonduko du. Laburrean: dagoen moduan planteatuta, bide horretan ez dut ezer onik ikusten.

XABIER BARANDIARAN. Nik, aldiz, bide orria gartzeko baldintzak ikusten ditut. Ibarretxek prozesua planteatu duen bezala planteatzea guztiz legezkoa eta bidezkoa da, bai normaltasun politikoari begira eta bai bake ikuspegitik. Bakea lortzeko bidean, ekimen eraginkorra eta baliozkoena da, bakarra. Zailtasunak daudela aurrera eramateko? Noski. Bat baino gehiago. Baina gainditu daitezke. Onargarria ez dena Espainia-



Garbiñe Biurrun, Xabier Barandiaran, Jose Luis Elorza eta Iñaki Antiguiedad.

ko Gobernuako presidentek negoziatzeari uko egitea da. Zapaterok negoziatzeari uko egitean Euskal Herria ukatu egiten du eta. Ibarretxeren bide orria arazo politikoa eta alderdien arteko aldeak gaintzeko tresna da, erabakitze eskubidea lortzeko bitartekoa. Tresna demokratikoa eta politikoa da, bera sakontzen dugun heinean akordiorako bitartekoa bilakatuko da.

IÑAKI ANTIGUEDAD. Nik, berriz, bide orria gauza hutsala ikusten dut. Agian, ikuspegi metodologikotik egokia izan liteke. Agian. Hori eztabaidatu daiteke. Baina metodoa baino gehiago behar da. Hau da, metodologiaz gain, zein da mamia? Hezurra dauka, baina zein da mamia? Klandestino samarra ikusten dut bide orria. Ez naiz ziur ere, Ibarretxek berak ote dakien zertaz ari den bide orria aipatzen duenean. Jendeak bide orria kontsultarekin identifikatzen du gehienbat. Metodologikoki, egokia izatekotan, bide orriak kontsulta bat baino gehiago beharko luke. Kontsulta, bide orri horren barruan, urratsa edo tarteko helmuga al da? Hori da hezur mamitu gabe izatea

niretzat. Kontsulta? Bai. Baina, zer galdetuko da? Zer galdetu eta zein norabidetan? Horretaz ez dakigu ezer. Eragile politikoen arteko aliantzak ere ez dira egin. Ez da erabakitze eskubidearen defentsaren aldeko nahiko lanik egin. Baldintza egokiak ba al diren? Ego-

“**N**ik bide orria hutsala ikusten dut. Agian, ikuspegi metodologikotik egokia izan liteke. Hori eztabaidatu daiteke. Baina metodoa baino gehiago behar da. Metodologiaz gain, zein da mamia? Hezurra dauka, baina zein da mamia? Klandestino samarra ikusten dut”

I. ANTIGUEDAD

era behintzat oso larria da, herri honek bene-beneta-ko irtenbide politikoa behar duelako: ETaren biolentzia hor dago, GAL juridikoa hor dago, besteak beste. Horiek dira baldintzak. Zirkulu itxi batean sartuta gaude, eta atera behar dugu, eta galdetzea ateratzeko modua izan daiteke, kontsulta egitea. Ibarretzek, ueña iritsita, kontsulta bi modutara planteatu dezake: alderdi sozialistarekin adostasunean edo adostasunik gabe. Nik betoa ez dut onartzen. Ez da lotesle izango, ados, baina egoera desblokeatzeko modukoa izan daiteke. Eta egoera berri horretan alderdi bakoitzak esan dezala non kokatzen den. Edonola ere, Ibarretzek ez du aukera horri begira nahiko lan egin, horregatik, egoera politikoa iluna da guttiz.

GARBIÑE BIURRUN. Nik ez dut egoera horren ilun ikusten. Lehendakariak 2007ko irailean azaldutako bide orriak zehaztasunak eskaintzen ditu. Abiatu zenean mugitzeko epe laburra edo askatasun falta zuela esan zen eta ados nago. Baina orain eta iaizko irailean zeuden mugariak berberak dira. Ñabardura bat, ez da Ibarretxeren bide orria, lehendakariak

aurkeztua da, baina Jaurlaritza osatutako hirukoak sostengatua da, baita Aralarrek ere. Hau da, bidea transbertsala edo zeharkakoa da. Ez batzuek nahiko luketen bezain transbertsala, baina neurri batean bai. Indar nazionalistak daude eta ez den bat ere: EB. EBk nazionalismoaren ikuspegitik sostengatu beharrean, demokraziaren eta federalismoaren ikuspuntutik sostengatzen du. Eusko Jaurlaritzak orri bideari ekiteko iaz landu zituen baldintza objektibok hauek dira: ETaren edo indarkeriaren desagertzea beharra, normalizazio politikoaren eta herritarren parte-hartzearen beharra, baita gehiengoari zor zaion begirunea ere, gutxiengoa errespetatuz betiere. Baldintzak mantentzen dira. Kontua da ekaina heldu dela eta erabaki behar dela ea kontsulta egingo den, eta ez urrian. Orain bertigo moduko bat sortu zaigu gauzak erabaki behar direlako.

X. BARANDIARAN. Ez nator bat Iñakirekin, bide orriari metodologia zehatzagoa eta mamia falta zaiola esaten duenean. Bide orriak herri honen etorkizuna eraikitzeko bi printzipio ezartzen ditu, eta ondoren,

M a h a i k i d e a k

■ IÑAKI ANTIGUEDAD



Hidrogeologian katedraduna

Bilbon jaio zen 1955ean, Arratia haranean hazia. Geologian lizentziatua eta doktoratua EHU. Hidrogeologian katedraduna. Leioako EHU. ari da, irakasle eta ikertzaile lanetan. Ura eta ingurumena ditu ardatz nagusi, irakasle eta ikertzaile modura. Garapen eredu gainera gogoeta franko egin du, hitzaldi ugari emanaz gai honi buruz. Ezker abertzaleko legebiltzarkidea Gasteizen Herri Batasunaren eta Euskal Herritarrok-en izenean. Bizkaiko Batzarretako kidea izana. Euskal hedabideetan analista politikoa. Bilbon bizi da.

■ XABIER BARANDIARAN



Soziologian doktorea

Ataunen jaio zen 1969an. Deustuko Unibertsitatean soziologiako ikasketak egin zituen eta bertan doktoratu. Unibertsitate honetako Donostiako Campusean Soziologia eta Iritzi publikoa ikasgaiak eman ditu irakasle bezala. CONFEBASKen aritua, baita Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri lan Sailean ere. Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusi Markel Olanoren (EAJ) gabineteko burua da. Gizarte ikerketen hainbat libururen egilea da. Euskal hedabideetan analista politikoa. EAJko kidea da. Ataunen bizi da.

lehendakaria Eusko Legebiltzarrera joango da, eta bertako gehiengoak onetsiz gero, gizarteari hitza emanaz, euskal herritarrei egingo litzaieke kontsulta. Egoera desblokeatzeko bidea da. Horrek, noski, alderdi politikoak ados jartzea eskatzen du, guk legitimitzat jotzen dugun erabakitzeke eskubidearen printzipioan oinarrituta. Hori berrikuntza ikaragarria da azkeneko urteotako euskal politikagintzan. Egia da faktore batzuek ez diotela laguntzen bide orriari. Esaterako, ETaren biolentziak kalte besterik ez dio egiten. Euskaldunok ahalegin berezia egin behar dugu, prozesuan sinesten badugu, ETari bide horretatik kanpo gera dadin eta armak utzi ditzala behingoz eskatzeko. Herri honek bere etorkizuna irabazteko eta aukera hau garatzeko ezker abertzaleak prozesu honekin bat egitea oso inportantea litzateke. Halaber, Estatuak errespetatu beharko du herri honen erabakitzeke gaitasuna, horiek izan ezean, ziur aski baldintzarik egokiak ez dira emango prozesua garatzeko. Azkenik, Iñakik dio ez dela lanik egin. Ez da egia. Lehendakaria aspalditik ari da orria gizarteratzen. 100 mintegi jarri dira udaletan herritarrek parte hartu dezaten, beste tresnak ere zabaldu dira

prozesuari buruzko iritziak jasotzeko. Legebiltzarrean eztabaidatu da eta alderdiekin elkarriketak garatu ditu Ibarretzek. Gizarteak harreman horiek jarraitu ditu, eztabaidatu egin da komunikabideetan, herrietan eta etxeetan. Bide orriak behar duen gizarteratze prozesua burutzen ari da.

J. L. ELORZA. Xabier, mundua oso polito margotzen ari zara: herriak prozesuaz hitz egiten duela diozu. Hauteskundeetan ere hitz egiten du herriak, eta prozesua hasi zenetik Ibarretxe bereziki ez da ondo atera. Argi da Imazek azaldu zuena –argitu beharko litzateke zergatik joan zen–: EAJn ikuspegi erabat dibergenteak daude bide orriari buruz. Jose Luis Bilbaoren deklarazioak oso nabarmenak izan dira. Ibarretzek hanka sartzeaz harago, bere izaera ageri da prozesuan, bera horrela da, irtenbide gabeko egoerara iritsi da. Ibarretzek prozesua planteatu zuenean ondo zekien estatuko hauteskundeak zetzozela, baita Espainiako Gobernu osatu bitartean, ekainera bitartean, Espainiako presidentearekin edozein negoziazio burutzeko denborarik ez zela jakin ere. Alegia, bide orria hauteskundeak norik irabaziko zituen jakin gabe

■ GARBIÑE BIURRUN



Epaille eta magistratua

Tolosan jaio zen 1960an. EHUUn lizentziatu zen zuzenbidean, Donostiako fakultatean. EHUko irakaslea da. Segurantzazoziala eta Lanaren zuzenbidea erakusten ditu. EAeko Justizia Auzitegi Goreneko magistratua da. Epaillea da halaber Tolosako epaitegian. Demokraziarako Epailleak taldeko kidea. Ikerketa juridikoari buruzko hainbat lanen egilea. Euskadiko Ezkerrako kidea izan zen. Egun, Bakearen Aldeko Koordinakundeko (BAK) eta Lokarriko kidea da. Euskal hedabideetan analista politikoa. Tolosan bizi da.

■ JOSE LUIS ELORZA



Soziologian doktorea

Idiazabalen jaio zen 1957an. Geografia eta Historian lizentziatua da. Ikasketa hauek Bartzelonako Unibertsitatean burutu zituen eta antropologian espezializatu. Deustuko Unibertsitateko fakultatean soziologiako doktoregoa egina. Eusko Jaurlaritzarentzat heziketa eta enplegu aholkulari lanetan aritua da. Gaur egun, aholkulari lanetan ari da bereziki, heziketarekin harreman estuak dituzten lanetan. *Txindoki Magazine* eta *Abaliñe.com*. aldizkarien sortzaile eta zuzendari izana. Euskal hedabideetan analista politikoa. PSE-EEko kidea da. Beasainen bizi da.



Gure solaskideen hitzetan, hirukoa osatzen duten EA, EAJ eta EB alderdiei benetako ordua iritsi zaie.

planteatu zuen Ibarretzek. Zapaterok irabaziko zuela suposatuz, baina ez zen gauza jakina. ETak su-
etena bertan behera utzi zuenean, Zapatero eta bake
prozesua pikutara joango zirela zabaldu zen ezker
abertzalearen inguruan. Ezker abertzaleari kalkulua
gaizki atera zaio ordea, eta orain Ibarretxe Zapaterori
begira dago. Arazoa nork du negoziatzeko, Zapaterok
edo Ibarretzek? Ibarretzek, noski. Garbiñek esan due-
nez urduritasuna dago datekin: zer egin behar da? Zer
ez? Zapaterok ez duela negoziatu nahi diozue... Mese-
dez, Ibarretxerekin hitz egin nahi du eta. Beste gauza
bat da, alderdi sozialista, Iñakik esan bezala, ez dago-
ela prozesuan sartzeko prest. Baina kontuz, PSE lehen
alderdia da Euskadin, eta Euskal Herriaz ari bagara are
gehiago. Prozesuan lehendakari batek kontsulta plan-
teatzea lehenengo alderdia –edo hirugarren alderdia,
berdin da– kontuan hartu gabe, edota EBrekin trans-
bertsalitatea egiten dela esanez... Hori horrela saldu
nahi duzuela? Niri politikoki izugarritzko astakeria iru-
ditzen zait. Demagun epe motzean aurrera egiten
duela. Eta pentsa dezagun ere PSEk irabazten dituela
datozen hauteskundeak. Lehendakari sozialista bada,
zer egin behar da, prozesuari buelta eman? Prozesu
honek non jartzen gaitu herri bezala?

I. ANTIGUEDAD. Bide orriak mamia behar duela
esan dut. Ez dut bide orriak letrarik ez duenik esan

nahi, mami praktikoa ez daukala baizik. Adibidez,
Ibarretxe Lizarra-Garaziko Akordioaren garaiko hau-
teskundeetan izendatu zuten lehendakari. Ni Euskal
Herriarrok-eko legebiltzarkide nintzen orduan, eta
botoa eman nion. Ibarretxe, alde aurretik landuta-
ko testu bati emandako gure botoekin atera zen
lehendakari. 2004n ere Batasuneko hiru legebiltzar-
kideren botoa emanda joan zen Madrilerara, baita
muturrekoa hartuta itzuli ere. Letrak mamia izan
dezake, baina esaera zaharrak dioenez “Esanak
erraz eginak garratz”. Mamia kritikatu dut, ez letra
faltagatik. Proposamena beste eragileekin lantzea
eta konpartitzea ere mamia da, gertuen egon daitez-
keenekin batzeko lan egitea letrari mamia ematea
da. Xabier, 100 mintegi aipatu dituzu. Nik ez dut
inondik inora ikusten, familietan edota enpresetan
hirukoaren bide orria borborka ari denik. Bide orria
eta kontsulta kontzeptualki zer diren argitu beharko
litzateke, gauza bat da erabakitze eskubidea eta
beste bat kontsultatua izateko eskubidea. Jendeak
ez ditu horiek ondo bereizten. Eta hori ere ukatu
egiten zaigu: ilegala izan daitekeela esaten zaigu.
Nik argiago ikusi beharko nuke bide orri hori, jaki-
teko non nagoen eta zer falta zaidan. Nafarroa eta
Iparralde non dauden, kontzeptualki burujabetza-
ren aldekoak garenontzat behintzat. Jose Luisek
esandakoaren harian, martxoko hauteskunde

“**E**z dakit hauteskundeen aurretik Zapateroren nahia zein izango zen bide orri honen inguruan, baina uneon euskal alderdi sozialistak Zapatero lotuta dauka. PSEri ez zaio interesatzen inolako akordiorik egitea Ibarretxerekin, oso txarra litzatekeelako bere interes elektoralentzat”

G. BIURRUN

harian: guk ez genuen botoa emateko aukerarik izan. Egia da, alderdi sozialistak irabazi zuen, hor dago eta kitto. Ondo. Baina zuek “emaitzek erakusten dutela ez dakit zeren porrota” esatean tranpa egiten duzu. Emaitzen irakurketa ezin da berdina izan, hauteskunde orokorretan eta autonomikoetan. Joerak daudela azkeneko urteotan, konforme. OTANeko erreferenduma dut gogoan: gauza bat da lehia elektorala, horiek alderdien aukera dira, eta beste gauza bat da galdetzea honetaz edo hartaz. OTANeko erreferendumean aldeko botoa eskatu zuten alderdi ia denek eta hurrengo hauteskundeetan, OTANi ezetza emanda ere, botoemaileek beren alderdiei eman zieten botoa berriz ere. Non dago alderdien beldurra? Alegia, zuek lehenengo indarra izanda eta benetan sinestuko bazenute oraingo boto joera ez dela kasualitatea, non dago arazoa “galdetu dezagun” planteatzeko. Galdera mota zehaztu eta galdetu. Hartara, gutxienez denok jakingo genuke EAEko gizarteak zer pentsatzen duen galdera zehatz baten inguruan. Bestela, hemen guztiok, ezker abertzaletik alderdi sozialistara bitarte, denok hitz egiten dugu euskal jendartearen izenean, baina galdetu gabe. Kontua ez da hauteskundeetan botoa niri eman didatela, baizik eta jendeak beste arazoez zer iritzi duen galdetzea. Galdetu dezagun zuzen-zuzenean, gainera demokrazian sakonduko genuke.

Espainiako Kongresurako hauteskundeek bide orrian izandako eraginaz ari zaret. Segi ezazue gai horrekin bada.

G. BIURRUN. Jose Luisek dio herriak –bere gustuko alderdiaren bitartez– botoa emanez hitz egin duela. Eta jarraian, herriak esan duena interpretatu behar dugula esan ere. Zergatik ez zaio, arrazoi demokratikoak tarteko, zuzenean, nahi duenaz galdetzen? Horrela ez dugu ezer interpretatu beharko. Ibarretxeri aurpegiratu diozu prezipitatu dela, hauteskundeak tartean zeudela. Ibarretxek eta hirukoak kalkuluak eginak zeuzkatela uste dut. Hemen eta orain, Estatuarekin akordio iraunkorra lortu behar da. PSOEk irabazi edo PPK irabazi, edozeinek irabazi ere, Gobernuan dagoenak saiatu behar du akordioa lortzen, eta akordioa iraunkorra izan dadin. Hauteskundeek eragin dute noski, baina ez estatu mailako emaitzek, EAEko emaitzek baizik. Ez dakit hauteskundeen aurretik Zapateroren nahia zein izango zen bide orri honen inguruan, baina uneon euskal alderdi sozialistak Zapatero lotuta dauka. PSEri ez zaio interesatzen inolako akordiorik egitea Ibarretxerekin oso txarra litzatekeelako bere interes elektoralentzat. PSEk itxaropenak ditu hauteskunde autonomikoetan eta Zapaterok zerbait egiten badu bide orriari begira PSE zapuztuko du.

X. BARANDIARAN. Jose Luisek esan du PSEren arazoa denbora arazoa dela, ez da egia. Denok dakigu PSOEk Espainiako Gobernuaren kudeaketa bere esku izan duenean zer jarrera hartu duen Gernikako Estatu-tuarekiko, esaterako. Ibarretxeren orri egutegia ez da arazoa, malgua da, eskaintzak izan dira bidea malgutzeko. Arazoa da Espainiako Gobernuak haxe dioela: “Ni prest nago akordio batera iristeko, baina nik jartzen ditudan baldintzetan. Prest nago euskaldunek esaten dutena onartzeko baina nik jartzen dudana joko zelaian jokatu ondoren, bestela ez”. Katalunian gauza bera gertatu da. Zapaterok esan zuen kataluniarrek esana onartuko zuela. Ez da egia. Arazoa da alderdi sozialista ez dagoela prest herri honek erabakitzen duena errespetatzeko, ez da denbora kontua. Halaber, esaten denean akordio transbertsala behar dela herri honetako sentsilibitateak biltzeko, ados, baina transbertsalitatea ez da eraikitzen desberdintasunetik berdintasunetik bazik, eta uneon muinean dagoen arazoa hori da. PSEk emaitza onak eskuratu ditu hauteskunde

“Zeinek ukatzen du galdetzea? Kontua da zein galdera arraioa planteatu behar den!? Erreferenduma? Erakargarria da, noski. Eta ondorioak? Gernikako Estatutuarena egin zen eta batzuek ez zuten onartu. Orain, aldiz, beste bat egin nahi duzue, aldez aurretik arrakasta ziurtatua balitz bezala iragarrita”

J. L. ELORZA

orokorretan. Egia. Baina horregatik ondorioztatu behar al da auzia konpontzeko herri honek uko egiten diola erabakitze eskubideari? Inondik inora ez. PSE emaitza onak estrategikoki ari da kudeatzen, eta uneon hauteskunde autonomikoetan lehendakaritza hartzea du helburu. Ibarretxek planteatutako proiektua EAJk alde batera utz dezan ere lanean ari da. Eta abertzaleok ezin dugu hori onartu. Aukera historiko baten aurrean gaude aurrerapausoak emateko, abertzaleon lankidetzak horretan ezinbestekoa da, baita ETAK armak behin betiko uztea ere.

J. L. ELORZA. Nik hauteskundeetako emaitzak aipatu ditut, baina ez dut horregatik autonomikoetan berriz errepikatuko direnik esaten. Eta ez da datu islatua ere, azken udal hauteskundeetan ematen hasi ziren-eta. Datu esanguratsua da. Kontsulta aipatu duzue. Nola eta zer galdera egin, ordea? Alderdi sozialistak ez duela herri honek erabakitze eskubidea erabiltzea nahi esatea demagogia hutsa egitea da.


X. BARANDIARAN. Hain begi bistakoa da...

J. L. ELORZA. Zuretzat izango da, Xabier. Zeinek ukatzen du galdetzea? Kontua da zein galdera arraioa planteatu behar den!? Erreferenduma? Erakargarria da, noski. Eta ondorioak? Hemen erreferendumak egin dira. Esaterako, Gernikako Estatutuarena egin zen eta batzuek ez zuten onartu [Iñakiri begira]. Orain, aldiz,

beste bat egin nahi duzue, aldez aurretik arrakasta ziurtatua balitz bezala iragarrita. Uneon ez da adostasun nahikorik, ez Jaurilaritzan ez berau osatzen duten alderdien barruan, hori da benetako arazoa, eta gizarteari kontsulta egitea planteatu nahi zaio. Zein galdera egiteko? Batzuentzat galdera hauxe da: autodeterminazio eskubidea eduki nahi duzu, bai ala ez? Pentsatu al du inork horrek zein ondorio juridikoak dituen? Ez noski. Hemen bakoitzak galdera interesatzen eta nahi duen moduan planteatzen du. Askok honela galdetuko luke –Ibarretxek ere honela joka dezake–: ETArekin ados zaude? Nahi duzu borroka armatua bukatzea? Eta horretan gehiengoa alde aterako litzateke. Ibarretxe kontsultarekin jolasten ari da. Errealitatea hauxe da ordea: Ibarretxe estatuko ordezkari nagusia da Euskadin. Nahiz berari eta EAJko askori ez zaion hori gustatzen. Ibarretxek legeak bete eta betearazi behar ditu, eta horrelako kontsulta bat planteatzen badu ere –Eusko Legebiltzarraren onarpenaz ere–, ez du ulertu legalki ezin dela erreferenduma egin. Alderdi politiko batek planteatzea onartu dezaket, nahi bat da, baina lehendakariak proposamen hori egitea?

Non jarri dezake sabaia Zapaterok? Zer onartzeko prest egon daiteke Ibarretxe ekainera eta urrira bitarte?

I. ANTIGUEDAD. Zapaterok sabaia Konstituzioan edo zuzenbide estatua deitzen den horretan jarri du. Jose Luisek esan du bidea ez dela legala. Ibarretxeren bide orria ikusita, bide judizialean sartuko ote zuten galdetu zioten behin barne ministro Alfredo Perez Rubalcabari. Honek politikatik egindako proposamen bati politikatik erantzun behar zaiola esan zuen, esku-zabal jokatzuz nonbait: “Politikoki eztabaidatuko dugu beraz eta esango diogu ez, ez eta ez” esan zuen Rubalcabak, bere horretan bukatu zen bere esku-zabaltasuna. PSOEek edo Zapaterok argi daukate: “Gu prest gaude jendartearen hitza onartzeko, baldin eta...”. Alegia, puntuak eta gero “zuzenbide estatua- ren mugetan” dator. Konstituzioa da muga eta berau gainditu nahi dugunok –demagun Ibarretxeren bide orria hori gainditzera doala, hala omen– sinestu dezagun orriaren helburua euskal jendarteak erabakitzea dela, Ibarretxek berak dioenez. Ondo, baina nola iritsiko gara beti etorkizun den horretara? Hemen konfrontazioa planteatzeko ordua heldu da, zentzu



Xabier
Barandiaran
adi-adi begira
Iñaki
Antiguedadi.

onean eta politikoa diot. Burujabetasunean sinesten dugun euskaldunoi ezina bazaigu sabaia edo muga hori gainditzea, nolabaiteko konfrontazio politikoa behar dugu. Bide horretan, Legebiltzarreko urriaren 25eko kontsulta hori egoera desblokeatzeko ekimena izango al da, edo beste makillaje moduko bat? Beste urte askorako iruzur bidean sartzeko modua, alegia.

Konfrontazio politiko hori sartzen al da Konstituzioaren barruan? Iñakik dioenez, modu zibil eta demokratikoa. Zuri galdetzen dizut Jose Luis.

J. L. ELORZA. Konstituzioa gure oinarritzko legea da, eta hemen Gernikako Estatutua. Edozein planteamendu politiko egiten bada horiek kontuan hartu gabe, metafisika politikoa egitea da, aurrerapausorik emango ez duena. Konstituzioak eta Estatutuak ate batzuk irekita uzten dituzte hala ere, xedapen iragan-korra, besteak beste. Zorionez, guztiz zehatzak ez direnak. Baina baldintza bat dago oroz gain, herri honek adostasun zabala behar du aurrerapauso bat emateko. Hori eman ezean, nik ez dut ikusten, ez Zapaterok ez beste inork, zergatik aldatu behar duen Konstituzioa. Kontua da euskal herritarren artean adostasun batera iristea. Edo ez? Horretarako gauza ez bagara alferrik da pilota Madril aldera botatzea [Zalaparta solaskideen artean].

G. BIURRUN. Eta adostasun zabala baldin badago?

X. BARANDIARAN. Horrela planteatuta, eztabaida faltsua da. Honen oinarrian dagoen arazoa Espainiaren defizit demokratikoa da. Estatuak espainiar nazioaren subiranotasuna konstituzionalizatzen du, eta gainerako nazioei ez die eskubide hori aitortzen. Errealitate hori da...

J. L. ELORZA. ... defizit demokratiko hori mundu osoan dago.

X. BARANDIARAN. Espainiako demokraziaren zor inportanteena hori da. Hemen, euskaldunon arteko adostasuna lortu behar dela esatea ondo iruditzen zait, baina hori lortzeko unean alderdi batek esaten badu “ni ados jarriko naiz baldin eta Espainiako Konstituzioak ezarritako desberdintasunaren oinarria onartzen baduzu...”.

J. L. ELORZA. Alderdi bakoitzak bere baldintzak jartzen ditu.

X. BARANDIARAN. Hori horrela bada, estatu horren zor demokratikoa aitortu behar da [Zalaparta eta desadostasunak solaskideen artean].

G. BIURRUN. Kontua da Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren sabaia non dagoen ezagutzea. Bilduko dira, berriz ere argazkia egingo da, aurrekoetan bezala, eta erantzuna Zapaterok errepikatu ohi duena izango da. Abentura hitza erabiliko du.



“Testuinguru historiko honetan, Zapatero Espainiako presidentea da, Konstituzioaren ondorioz. Zapaterok berau hankaz gora jarriko duela pentsatzea ingenuitate politiko ikaragarria da” esan zuen Jose Luis Elorzak.

Konstituziotik kanpo biderik ez. Zapateroren sabaia edo muga Katalunian ezarri zuena da. Ibarretxeren sabaia Kongresuan aurkeztu zuen Jaurlaritzaren Planaren hitzaurrea da. Ibarretxe horretaraino heldu daiteke. Arazoa Zapaterok uko egiten dion puntuan dago. Arazoa dago Planaren Hitzaurrean, berau onartuko balitz, edukia gutxienekoa litzateke. Alegia, euskal alderdien arteko akordio zabala balitz eta Konstituzioa gaindituko balu, zer? Akordioa Konstituzioaren aurka baldin badoa, zer egin behar du estatuak?

J. L. ELORZA. Adostasun zabala lortzen bada posible da Konstituzioa erreformatzea. Garbiñe, ahaztu gaitezen Madrilekin eta Zapaterorekin une batez. Posible ikusten duzue euskal indar politikoen artean akordio posiblea iristea?

G. BIURRUN. Nik ez dut zailtasun objektiborik ikusten.

X. BARANDIARAN. Are gehiago esango nuke nik: erabaki eskubideak ez du adostasun ez helburu politikoa izan behar, oinarritzko baldintza izan behar du herria egituratzeko.

J. L. ELORZA. Zeinek ukatzen du hori?

X. BARANDIARAN. Alderdi sozialistak eta Zapaterok.

J. L. ELORZA. Hori gezurra da Xabier, zure interpretazioa da. Legea behartuz egiten duzun interpretazioa da. Oso legitimoa nahi baduzu, baina jarrera politikoa da. Beste batzuek beste jarrera politiko bat daukagu eta horregatik esaten dut, ahaztu Madrilekin. Gure artean, hemen eta une honetan, Legebiltzarrean dagoen indar banaketa izanda –gehiengoa al da legebiltzarkide baten boto bat gehiago izatea?– horrelako prozesu bat bideratu daiteke?

X. BARANDIARAN. Ez. Ez da hori [Zalaparta].

I. ANTIGUEDAD. Kuriosoa da “bat gehiago hori al da gehiengoa?” galdetzen du Jose Luisek. Zapaterok esan zuen euskal gizartearen %51arekin trena hartzea abentura dela. Ba, bai. Baina %51ekin abentura bada, %49ekin are abentura handiagoa da, ezta? Baina hori ez du esaten, eta ez du esaten ere Espainiako ez dakit zenbat milioi biztanleengan ezarria dela erabakitze eskubidea. Galtzerdiak ez dira eskuetarako. Egia da, arazoa ez dago bakarrik Madrilen, hemen ere badago.

J. L. ELORZA. Bada zerbait esatea.

I. ANTIGUEDAD. Eta esan behar nuzun hori ere [irriak]. Baina, akordio idilikorik ez dago. Adi! Beto eskubidea dago. Eta nik ez diot alderdi sozialistari ez ETari betoa onartzen, hori ere esan behar nuen eta esaten dut. Hemen ez dago poker egiterik. Hemen,

“**E**z nator bat bide orriari metodologia zehatzagoa eta mamia falta zaiola esatearekin. Herri honen etorkizuna eraikitzeke bi printzipioak ezartzen ditu, eta ondoren, lehendakaria Eusko Legebiltzarrerera joango da, eta bertako gehiengoak onetsiz gero, euskal herritarrei egingo litzaieke kontsulta”

X. BARANDIARAN

nahiz eta beto hitza erabili ez, batzuek betoa darabilte: hau da, nor bere baldintzak ezartzen ditu. Beraz, beste batzuek egin beharko dugu aurrera: zelan gainditzen ditugun bidean jartzen dizkiguten trabak? Prest nago onartzeko ETA traba dela, baina traba da PSOE, PP, baita beste alderdi abertzaleek egiten duten politika instituzional azalekoa ere. Hemen traba bat baino gehiago dago [Xabierrri begiral]. Debate hori falta zait, eta agian beste bide orri bat ere!

X. BARANDIARAN. Zapatero, ikuspegi demokratikotik, behartuta dago Euskal Herriaren herri borondatea errespetatzea eta hori onartzen ez duen bitartean, herri honen auzi politikoa ez da amaituko. Zapaterori bi arazo nagusi ikusten dizkiot: bat, sinesten duela Konstituzioan eta nazio bakarraren ideien gainean eraikitako estatuan, ez du sinesten nazio ezberdinen baitan eraikitako estatuan. Bi, hauteskunde prozesua erabili egiten duela gainontzeko alderdiek Espainian erabiltzen duten bezalaxe. Azkeneko bake prozesuan planteamendu estetikoak egin du, ez du normalizazioaren prozesua garatu. Arazoa oso serioa da.

J. L. ELORZA. Hori ez dut inondik inora onartzen!

G. BIURRUN. Hemengo akordio zabala aipatu da eta nik ezinezko ikusten dut ezker abertzalearekin akordio zabalera iristea. Aldiz, ez dut ulertzen alderdi sozialistarekin zergatik ezin den akordiorik lortu.

J. L. ELORZA. Zer motako akordioaz ari zara?

G. BIURRUN. Akordio zabala EAEko gizarteak erabakiko duela esateko. Gure askatasuna erabili Estatuarekin itun bat egiteko. Hori litzateke oinarria, printzipio etikoak oinarrian izanda betiere.

J. L. ELORZA. Estatutu berri batez ari zara?

G. BIURRUN. Baliteke. Baina, badirudi Zapaterok ez diola estatutu hori bidea emango Jaurlaritzaren planaren Hitzaurrea onartuta. Edukia gutxienezkoa da, inportantea da esatea: itun berria egingo dugu herri honen askatasuna eta erabakitzeke eskubidea erabiliz. Hor dago gakoa.

J. L. ELORZA. Eta sabaia non dago? Zapatero Espainiako presidentea da testuinguru historiko honetan, Konstituzioaren ondorioz. Zapaterok hori hankaz gora jarriko duela pentsatzea ingenuitate politiko ikaragarria da. Eskatu ezin zaion zerbait da. Zapatero legediaren ondorioa da eta Ibarretxe ere bai. Alderdi sozialistak, Josu Jon Imazek aipatu bezala, aurrerapausoak eman ditu klabe horietan. Klabea Gernikako Autonomia Estatutuan lortu zen akordioa baino zabalagoa lortzea da, eta hainbat hobe. Hemen, klabea hemengo indar politikoei akordioa lortzea da eta gero Madrilen negoziatzea. Eta badakit oso ahalegin zaila dela [Inakiri begiral]. Zuk beto eskubidea aipatu duzu: ez dut ulertzen. Adostasuna bai, baina adostasunik ez badago besteek betoa jartzen didatelako da. Orduan adostasuna zer da? Nire planteamenduetan betoa jartzen ari naiz? [Zalaparta solaskideen artean].

Barkatu, ni ez banago ados zure planteamenduetan, betoa jartzen dut? Eta alderantziz, zu ados ez bazaude nirekin, betoa jartzen dizut?

I. ANTIGUEDAD. Kontua da zeinek daukan boterea.

G. BIURRUN. Akordio zabala izateak zer esan nahi du? Hori ez da baldintza, ezta?

J. L. ELORZA. Hor dago koska. Hori da egin beharreko ariketa.

G. BIURRUN. Eta denekin kontatu behar da akordioa zabaltzen hasteko.

“Lehendakaria nire lehendakaria ere bada. Bide orriaren estrategia okerra da, ez digu ezer ekarriko epe motzean. Nik ez dut herri hau etorkizun laburrean oinarritzko adostasunera iristeko moduan ikusten, baldin EAJren eta PSEren arteko akordio estrukturala ez badago”

J. L. ELORZA

X. BARANDIARAN. Niretzat inportantea ez da zein jartzen den ados edo zenbat, baizik eta zertan jartzen diren ados. Esaterako, ni ez naiz sekula santan ados jarriko alderdi sozialistarekin, baldin behartzen banau nire buruari uko egitera.

I. ANTIGUEDAD. Garbiñek esan du zaila ikusten duela ados jartzea ezker abertzalearekin.

G. BIURRUN. Une honetan, bai!

I. ANTIGUEDAD. Segun eta zertaz ari garen, eta Xabierrek esan berri duena ondo datorkit. Hau da, adostasun zabala baina zertan. Zein da norabidea?

J. L. ELORZA. Bakoitzak proposatzen duena.

I. ANTIGUEDAD. Noski, baina bakoitzak argi eta garbi presentatu dezala bere bide orria. Hasteko, ikusteko ea posiblea den orri bateratua diseinatzea, eta zentzu horretan ezker abertzaleak Iruñeko Anaitasunean iaz aurkeztu zuena marko demokratiko batera iristeko nolabaiteko bide orria da.

X. BARANDIARAN. ETAk apurtu zuena...

I. ANTIGUEDAD. Hainbat buru zenbat aburu. Nik esan dezaket ere Ertzaintzak Ibarretxeren bide orria apurtu duela une batez. Etikak etika mota asko ditu. Trazatu dezagun norabidea, ez dezagun burua behartu adostasun batera iristen, lehenik norabidean jar

gaitezen, ados izan gabe oraindik, horretan ez dugu bat egin oraindik ere. Betoa hitza aipatu dut [Jose Luisi begira]. Ni ez naiz ados zurekin, ezta ere zu nirekin, baina ez dugu beto eskubide bera aplikatzen. Zuek zarete boterean, zuk eta zuek interpretatzen duzue Konstituzioa. Agian, kontsultaren lehen galdera beharko da: bat al gatoz hemen Konstituzioarekin? Gernikako Estatutua nahi al duzue edo ez? Alegia, zuek esaten duzue “zer edo zer berri egiten bada, izan dadila 1979ko Estatutuak izan zuen besteko babesa gutxienez”. Ez. Galdetu zein babesa duen Estatutuak gaur egun? Ez dadila gertatu, orria orri, Gernikako Estatutuak dituen zuloak –transferentzia amaitu gabeak– prozesua tapatzeko ekimena izatea, berriz ere beste 30 urtetako joanaldira eramango gaituena, gezurrezko bide egitera, alegia.

Gaia Eusko Legebiltzarrerara iristen bada, EHAKren taldearen (Ezker Abertzalea) jarrerara berebizikoa izango da. Nola balia dezake unea ezker abertzaleak?

I. ANTIGUEDAD. Gara egunkariak aipatu zuenez, agian, Ibarretxe –ingeniaritza literarioaren bidez edo– EHAKri onartzea ezinezko zaion proposamenen bat prestatzen ari da. EHAK-k ezezkoa eman ostean, demagun, hauteskundera deituz, pilota EHAK-ren teilatuan geratuko zen eta haxe esan ere: “Zuengatik ez da lortu bide orria garatzea”. Nekane Erauskinek esan du ardura politikoz jokatu dutela, erabakitze eskubidea dagoela jokoan eta kontua ez dela beren jarrera zein den, baizik zertaz ari garen argi eta garbi zehaztea. Ez dakigu zer bozkatu beharko den Legebiltzarrean. Nik konfiantza daukat EHAK-k ardura politikoz jokatu duela, eta erabakitze eskubidean aurrera egiten ez bada, ez dela EHAKren ardura faltaz.

X. BARANDIARAN. Izan ere, ezker abertzalearen mundu soziologikoak ez luke besterik ulertuko, kasuon EHAK-ren ezetza, hau da, ezezko botoa ematea herritarrei planteatzen bazaie kontsultara joatea. Inportantea litzateke Legebiltzarraren gehingoak bide orriari baietza ematea kontsultara joateko. Baietzak EAeko ordezkari gorenak bide ematen diola esan nahiko du. Eta ezker abertzalea eragile funtsezkoa da bidean eta herri honen etorkizunean. Ezker abertzaleari herria zatitzen duen biolentziaren auzian azken pau-



Zalaparta gehien eragin zuten iritziak Jose Luis Elorzarenak izan ziren.

soa emateko unea iritsi zaio. Uneon ez dago inolako bideragarritasunik biolentzia lagun baduzu, eta kontsultak eta Ibarretxeren bide orriak duen arazo nagusia ETaren biolentzia da. Biolentziak mugatu behar al du adierazpen demokratikoa eta bide orriaren garapena? Ez. ETak ezin du beto eskubiderik izan. Ezker abertzaleak arduraz jokatu behar du, ez bakarrik bere bozka emateko unean, Legebiltzarrean, baita herrigintzaren garapena planteatzen denean ere, hau prozesu konplexua delako. Prozesua ez da bakarrik politika instituzionaletik garatuko, ekonomiatik eta hedabideetatik ere garatu behar da. Ezker abertzaleak behin betiko pausoa eman behar du.

J. L. ELORZA. Ibarretxe Planarekin gertatu zena errepikatuko da orain ere. Eta da: Ibarretxek bere plana planteatu zuenean ondo zekien, unean eta moduan, planteatu zuen bezala, alderdi sozialista eta PP kontra zeudela. Berak bazekin zenbakiak egin behar zituela, gehiengorik ez zuelako. Apustu politikoa eta elektoralera egin zuen aurrera egiteko, berak faktore batzuekin jokatu zuen, ezker abertzalearen baiezkoarekin, besteak beste. Gehiengoa lortzeko EHAK-k botoak maileguan ematen badizkio, orduan egin zuten bezala, aurrera egingo luke. Ekimena Auzitegi Konstituzionalera joango da eta Ibarretxeren betiko diskurtsoa entzungo dugu: “Zapatero gaiztoa da, ez digu erabakitzen uzten”. Eta hauteskundeak planteatuko ditu. Ibarretxek kalkulu horiek eginda dauzka. Baina diferen-

tzia bat dago: azken hauteskundeetako emaitzak ez direla Aznar eta Mayor Orejaren garaian lortutakoak. Eta beraz alderdian gatazka latza daukatela.

X. BARANDIARAN. Modu guztietara, alderdi sozialistak erantzun behar duen galdera hauxe da: Legebiltzarrek onartzen duena errespetatzeko prest al dago?

J. L. ELORZA. Beti errespetatu du.

X. BARANDIARAN. Orduan herri honi kontsultatu behar zaiola erabakitzen badu, Madrilek errespetatu dezala.

J. L. ELORZA. Lege barruan badago, bai. [Zalaparta berriz ere... gainerako solaskideen desadostasuna agerikoa da Batek “ez du errespetatuko...” beste batek “nterpretazioak dira...”.]

G. BIURRUN. Nik ez dakit zer gertatuko den Legebiltzarreko osoko bilkuran ekainean, baina, oker ez banago, kontsulta bultzatzen duten indarrek bi galdera planteatu nahi dute: bat, ETari buruzkoa. ETak uko egin beharko lioke indarkeriari helburu politikoak lortzeko. Eta nik horretan ez dut ezker abertzalea mailegu moduko bat egiteko ikusten. Baldin eta ezker abertzalearen jarrera ez bada aldatzen behintzat. Planteamendu horri beste modu batez erantzungo al dio orain? Ez dut uste. Beraz [Xabierri begira], objektu-



DANI BELANCO

Garbiñe Biurrunen esanetan "EHAK giltza izango da" Eusko Legebiltzarrean ekainaren 27an izanen den osoko bileran. Iñaki Antiguedaden hitzetan berriz, Ezker Abertzalea taldeak arduraz jokatu du. Argazkian EHAK-ren Ezker Abertzalea taldea.

boki zaila ikusten dut. Ez dakit zuk nondik ikusten duzun hori posible. Ezker abertzaleak PSE eta EAJ maila berean kokatzen ditu, beraz, Ibarretxeren bide orria gaizki utzi nahiko du, EAJn dauden kontraesanak agerian jarri nahiko ditu. Blokeoa hortik etorriko da.

X. BARANDIARAN. Lehendakariak planteatutako prozesuaren ondorioz, galderaren edukiak ezagutuko dira, baina galdera horien edukian oinarri bat dago, eta da: egoera politikoa desblokeatzeko lehenago aipatutako printzipioen maila. Egia da, eguneroko jardura politikoan epe motzeko jarrerak ikusten ditugula, ezker abertzaleak mantentzen dituen jarrerak epe motzekoak direla, baina une historikoetan bai EAJ eta bai ezker abertzaleak epe motzeko lehiak utzita –herri ikuspegia izanda– adostasunera iristeko gaitasuna erakutsi dute. Nik desio dut Eusko Legebiltzarraren gehiengoak herriaren galdeketa bide ematea. Zer gertatuko ote den?

G. BIURRUN. Baina ezker abertzaleak nola helduko dio printzipio etikoari uneon? Nik ez dakit nola.

Erantzun dezala Iñakik.

I. ANTIGUEDAD. Ibarretxe gurutziltzatu nahi dutenak etxe barruan ditu, ez kanpoan. Aspalditik datarren kontua da, ez naiz horretan sartuko halere. Ibarretxeren bide orriak eman du eman zezakeena. Ekainetik aurrera ordea, indar bakoitza are krudelago agertuko da. Alegia "Sutan jartzean probatzen da nolakoa den eltzea". Iritsi da ekaina. Bakoitzaren eltzea nolakoa den ikusiko dugu, ezker abertzaleare-

na barne. Bat nator Xabierrek esan duen gauza batekin, ezker abertzalearen espektro sozialak ez luke ulertuko ez bide orriaren aurka joatea, ez erabakitze-ko eskubidea gauzatu bide horretan eman daitekeen aurrerapausoaren aurka agertzea ere. Noski. Baina ezta EAJ eta EAKo oinarri sozialek aurrerapausorik ekarriko ez duen ezer aurkeztea. Hau da, ezker abertzaleak zer egingo duen baino, kontua da zein garrantasun eta zein norabide izango duen Ibarretxek aurkeztuko duen horrek. Aurrerapauso garbia bada, ezker abertzaleak kontuan hartuko du. Etika hizpide: "Sutan jartzean probatzen da nolakoa den eltzea" esaeran daude ere aspektu etikoak, etika guztiak. Behin behingoz, konfrontazio demokratikoa garatu dezagun, eta ez bota errua etikaren ardura faltari, biolentziarena gure gainean bakarrik botaz. Eztabaida sakonak falta dira. Legebiltzarrean ematen direnak ez dira ez sendoak eta benetakoak. Siglen gainean ari gara, EHAK-k balizko proposamen bati emango dion botoaz. Espektro sozialak aipatu ditugu, hemen siglez harago doan auzia dago jokoan. Aplikatu dadila politika zentzu zabalenean, eta ez bakarrik ekainean edo urrian, lehenago has gaitezten. Ping-pongaren politikak ez gaitu inora eramaten, bada garaia eltzea sutan jartzeko, bakoitzak konpon ditzala bere barruko kontraesanak eta argitu beharrekoak argitu ditzala behingoz.

Nola eragin dezakete bide orrian EAJko tentsioek?

J. L. ELORZA. EAJko arazoan ez naiz sartuko. Nik bi gauza bereiziko nituzke: Ibarretxek egiten duena ez da

“**I**mpresioa dut, EAJn bide orri bat baino gehiago dagoela. Ekainean gertatzen denaren arabera, litekeena da hauteskunde autonomikoak udazkenera aurreratzea. Eta litekeena da, ezker abertzalea bertan ez izatea”

I. ANTIGUEDAD

EAJren ekimena ez hirukoarena bakarrik. Lehendakaria nire lehendakaria da, eta bere jokaerek nigan eragiten dute, eta gaitasuna eta eskubidea daukat bere bide orria kritikatzeko. Bide orriaren estrategia okerra da, ez digu ezer ekarriko epe motzean. Nik ez dut herri hau etorkizun laburrean oinarrizko adostasunera iristeko moduan ikusten, baldin EAJ eta PSEren arteko akordio estrukturala ez badago. Gobernu akordioa baino harago doana, inportanteagoa dena. Hauteskundeetako emaitzen arabera akordioa izango da neurri batean, baina akordio estrukturalak behar dira puntu hauetan: bat, ETArekin amaitzeko. Bi, herri honen etorkizunerako akordio sendoa lortzeko, eta hiru, adosteko nola burutu hori Madrilekin kulturalki eta ekonomikoki. Hori egun ez da posible bi lehen indar politikoen artean oinarrizko akordioa ez badago.

X. BARANDIARAN. Ados naiz, oinarrizko adostasun estrukturala behar da. Kontua da zein edukien baitan egiten den. Eta ez bada erabaki eskubidearen eta eskubide demokratikoen baitan planteatzen, oinarri estruktural horretan ezinezkoa da ezer eraikitzea. Printzipioak ez badira ondo zehazten, oinarri sendorik gabeko akordioak izango dira.

J. L. ELORZA. Zehazpen bat Xabier: ezker abertzalearekin EAJk izandako akordio historikoak aipatu dituzu. Egoera larrietan akordioak EAJren eta PSO-Eren artean lortu dira, bai Gerra Zibilean bai Errepublikara garaietan. Ajuria Eneko Ituna eta herri honen lege nagusienak ahaztu gabe: euskararena eta eskola publikoarena. Eta hauek PPren eta HBren aurkako botoak jaso zituzten

“**E**kainera bitarte ez da zalantzarik egongo, besterik da Legebiltzarrean gertatuko dena. Ez badago kontsultarako akordiorik orduan ikusiko ditugu EAJko kontraesanak”

G. BIURRUN

I. ANTIGUEDAD. Noski, eta horregatik gaude, gauden egoeran.

X. BARANDIARAN. Dena den, eta Jose Luisek dioena esanda ere, une honetan erabaki eskubidea eta eskubide demokratikoa, bi printzipioak beharrezkoak dira eta abertzaletasunaren zatiketa guztiz kaltegarria da. Abertzaleak oinarrizko gauza batzuetan ados jarri behar dira, ez dut denetan ados jarri behar denik esan nahi, baina bestela euskaldunon borroka galdua da. Nik ulertzen dut hedabideek eta gainerako eragile politikoez etsaiaren egoera magnifikatzea: EAJren barne zatiketa. Garbi da ordea EAJk zuzendaritza berria duela urte hasieratik, ponentzia politiko berria onartua, eta lehendakariaren bide orriak eta EAJk diotena gauza bera direla. EAJko guztiak ados daudela denetan? Bada ziur aski ez. Baina alderdiaren ordezkartza legitimoa dutenek diotena eta lehendakariak dioena gauza bera dira, zalantzarik gabe. Urkulluk eta Ibarretzek diotena norabide berdinean doaz.

G. BIURRUN. Ekainera bitarte ez da zalantzarik egongo, besterik da Legebiltzarrean ekainean gertatuko dena. Alegia, ez bada kontsultarako akordiorik lortzen orduan ikusiko ditugu EAJn dauden kontraesanak edo arazoak, udazkenean pil-pilean azalduko dira. EAJn moldatzen ez badira ez dugu bide orririk ikusiko udazkenetik aurrera. Besterik da, hurrengo hauteskunde autonomikoetan EAJn nork izango duen lidergoa hautagaia izendatzeko.

J. L. ELORZA. Aukerak zabalik daude.



Zalaparta uneak bizi izan arren, solaskideen arteko giroa aparta izan zen.

G. BIURRUN. Legebiltzarreko bilkura eta ezker abertzalearen jarrera argitzeko daude artean. EHAK giltza izango da. Ibarretzek kontsultarako dituen asmoak ez ditut garbi ikusten, sostengu osoa emango dion edo hurrengo hauteskunderen zain egongo den EAJk nola jokatu duen ikusteko.

J. L. ELORZA. Xabier, hedabideek EAJko egoera magnifikatu edo ez, zuek ere nahiko oihartzun eman diozue. Historikoki ez dugu egundo ikusi jeltzale buruek publikoki horrelako kontraesanak azaltzen.

X. BARANDIARAN. Bai, eta autokritika egin behar dugu, hori ez baita ona. Gizarteari ez zaio transmititu

“Zapaterori bi arazo nagusi
 Zikusten dizkiot: bat, sinesten
 duela nazio bakarraren ideiarene gainean
 eraikitako estatuan, ez du sinesten nazio
 ezberdinen baitan eraikitako estatuan.
 Bi, hauteskunde prozesua erabili egiten
 duela gainontzeko alderdiek Espainian
 erabiltzen duten bezalaxe”

X. BARANDIARAN

behar den segurtasuna, baina ez dut uste horrek lehendakariaren bide orria zalantzan jartzen duenik EAJren baitan.

I. ANTIGUEDAD. Nik berriz, inpresioa dut, EAJn bide orri bat baino gehiago dagoela. Ekainean gertatzen denaren arabera, litekeena da hauteskunde autonomikoak udazkenara aurreratzea. Eta litekeena da, ezker abertzalea bertan ez izatea, inongo aukerarik ez izatea. Hori ere osagai garrantzizkoa da.

G. BIURRUN. Eta oso posiblea gainera.

I. ANTIGUEDAD. Eta horrek ere baldintzatuko bide orria, eta kontsulta. Hau guztia batzuen kalkuluetan izango da, ezta? Kontuan hartzekoa da, eta ezker abertzaleak ere kontuan hartuko du. Denek ere interesak dituzte. Ibarretzek Legebiltzarrean aurkeztuko duen testuaren idazketarekin zer ikusia duten interesak noski.

Maiatzaren 2an egin genuen mahai-ingurua Lasarte-Orian, ARGIAKO egoitzan. Lau aste joan dira orduz gero. Egoera politikoak bere hartan jarraitzen du, Madrilgo eta Gasteizko gobernuen arteko harremana blokeatuta dago. Ekaina eta urria berealdiko hilabeteak izanen dira egoera politikoa argitzeko. ■

www.argia.com

helbidean, mahai-inguruari buruzko bideoa eta bertsiio luzea.

Ez pentsa autodeterminazioaz!

"Pertsonen jokaera -zehazki, politikan botoa emateko orduan- ez dator azterketa sakon baten ondorioz, lehendik gure burmuinetan errotuta leudekeen 'frame' -marko edo eremua- antolatuan oinarrituta baino"



INIGO AZKONA

Nekane San Miguel*

George Lakoffek idatzirik *Don't think of elephants!* izenburua duen liburua omen azkenengo hilabetetan Ferraz eta Moncloan irakurriena. Hala esan zidan duela aste batzuk Madrilgo lagun batek. USAn best seller bilakatu zen lantxo hori 2007an Foro Complutensek argitaratu zuen gazteleraz (*No pienses en un elefante*) eta egun agintean direnak, ahalik eta zuku gehien atera nahian dabilta.

Lakoff linguista ezagunak hamaika lan eta ikerketa burutu dituela irakur daiteke berari buruzko informazioa bilatzen hasita; hala ere, publiko zabalarentzat liburuxka honek egin du ezagun, eta bertan ageri den ideia nagusia oso sinplea omen, adituen esanetan: Pertsonen jokaera (zehazki, politikan botoa emateko orduan) ez dator azterketa sakon baten ondorioz, lehendik gure burmuinetan errotuta leudekeen "frame" (marko edo eremua) antolatuan oinarrituta baino. Marko eta metaforaz osatu eta uztarturiko nagusi den egitura horietara helarazi nahi den mezua (ideia) egokitu ezean, sartu bezain fite doa kanpora; "arrotzak" ez du inolako aukerarik eremu horietan gelditu eta ernaltzeko. Horregatik ere, hitzak transmitituko duen ideia, aldezturik egituraturako markoaren arabera izango da bertan ahokatu ahal izateko. Azken finean, ditxosozko "frame" hori ez da mundua eta politika ikusteko modua osatzen duen buru-egitura baino, gizaki gehienak horren jakitun ez bagara ere, eta "komunikazioaren zibilizazio" honetan politikan arrakasta lortu nahi duenak (atarramentua botoemaile kopurua gehitzeaz eta aginteari eustez lotzen denean) badaki.

Esan gabe doa, Lakoffen gogoeta USAko demokratek ikur bihurtu dutela: Errepublikar partiduko (*) estrategak kolektibo den inkonsziente horretan lortu zuten eraginaren aurrean, klabe batzuk ematen baitzien, bestela ezin omen zuten ulertu nola hainbat zentzuzko baieztapen pikutara joaten ziren: besteak beste, egiak libre egingo zaituzte esatea ez zetorrela bat jendeak lasai asko irensten zituen gezurrez ohar-turik, edo eta pobreek nola ematen zieten botoa zuten apurra kenduko zion eskumari. Eta Lakoffek argitaratuko gogoeten haritik, ongi muntatu eta emoziozko eta moralarekin loturiko hizkuntzan, mezuak behin eta berriz errepikatzeak nolako eragina zuten jendearengan frogatu omen zuten: Heldu nahi duzun kolektibo horren "markoan" dagoen egitura nagusiaz jabetu; nahi duzun eragina zehatz definitu, eta hala, hitza edo mezu oso laburra (itxuraz, eta azalean azterketarik behar ez duena) hedabideen zirkuituan sartu, eta behin eta berriz errepikatuz lortuko omen duzu jendearengandik nahi duzun erantzuna. Hori bai, edo-nola ere, ez pentsa transmititu nahi ez duzunaz, eta gogoko ez duzun ideia bideratzeko, egitura eta pentsamolde hori aktibatuko lukeen hitza ez erabili.

Horren "praktika" ote errepikapenok? "Ibarretxe pelma" bat da; Ibarretxeren plana ez zaio inori interesatzen; jendeak beste buru-hauste batzuk ditu; Ibarretxeren asmoek euskal gizartea sakabatatzen dute; Ibarretxek dioena legearen kontra doa; Ibarretxe konstituziotik kanpo dago; noraezean dabil.... Aldiz, "guk" (kasu honetan PSOE) errespetua eskaintzen dugu; demokrazia; herria urtez urte boto-kutxatan espresatzen da; ez da



Autodeterminazioa aldarrikatu zen garaiko argazkia. PSOEko kideak ere antzeko pankarta batekin ibili ziren kalean.

egia Euskal Herriak ez zuela konstituzioa onartu, “marko” horretan eroso sentitzen dela erakutsi du... eta abar. Eta azken legegintzaldi honetan behin eta berriz errepikatzen den hitz “berri”ari erreparatu: “aventura” (soberanista hitza gehituz ala ez) Seguridadea eta egonkortasuna balore nagusizat barneratu diren honetan, hitz horrekin lortu nahi dena maltzurra dirudi: Terrorismo hitzak izua aktibatzen du; abenturak segurtasun eza, eta inseguridadeak, beldurra.

Maiatzaren 8an, logika eta zentzunari buruz mintzatzen zen Ibarretxe, eta esandakoarekin ados izan ala ez, neuronak beste modu batez (ez markoen mugaz) aktibatu nahi duenarentzat duintasunez beteriko ariketa iruditu zitzaidan, baina alperrik, oraingoan “Ibarretxe elektoralismo hutsez ari da”. Nola? Ez doa, bada, abertzaletasuna, gain-behera? Ez dio, bada, PSOEk alde izugarria atera azken hauteskundeetan? Boto-emaileak murriztu egingo ditu halako proposamen batek, ezta? Baina berdin dio.

“Frame”ekin jarraituz, hemen bada honela egituraturik: herri bat garela, eta gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea dugula. Hori zioen ere 1977an PSOEkide ezagunek zeramaten pankartak: “autodeterminazioa”.

“Frame-ekin jarraituz, hemen bada honela egituraturik: herri bat garela, eta gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea dugula. Hori zioen ere 1977an PSOEkide ezagunek zeramaten pankartak: autodeterminazioa”

Baina berriz ere George Lakoffengana bueltaturik, hauxe irakurri nuen: Haserre omen dela demokratekin, ezin baita guztia hitz eta hizkuntz manipulaziora mugatu. Benetan askatasunaren bidean mundua aldatu nahi bada, ideiak direla garrantzizko; komunikazioaren gizartera modua egokitu beharrak ez duela ekarri behar baloreen transmisioa alboratzea, lan eskerga izanik ere. Eta hau gehitzen du: Azken batean bere teoriak baliatu direla, ez jendearen jarre-ak aldatzeko, botoa eta agintea lortzeko baino, eta bide horretan, demokraten hamaika balore eta ideia aldatu dituztela, agintea lortze aldera; baloreak berretsi beharrean kontserbadoreen diskurtsoari antzerako ekintza eta ekimenak aurre-jartzen dizkiela.

Ez dirudi Ibarretxek lehendik “kontra” eraturako “markotan” sartzea lortu duenik, baina niretzat balorea den duintasunari eutsiz, ideiarekin konsekuente izaten ahalegindu da, horrek agintea galtzea badakarkio ere, eta goian aipaturikoarekin, beste hau entzun dut: “Ezer baino lehen, hemen lortu behar omen du Ibarretxek gehiengoa” (egiak libre egiten gaitu?) 2005eko danbatekoa izan ez balitz eta gehiengoa hala ez delakoan “gu” (PSE, kasu hone-tan) barruan ez bagaude.

Espainiaren batasun sakratua “frame” potentea izan, eskuma zein (ustez) ezkerrekoen burmuinetan erabat erroturikoa; aldatzea gura (komeni?) nahi ez dena.

(*) USAn Alderdi Errepublikarrari Elefantea esaten zaio

Enegarren porroterako aldapa

“Egindako eta egin gabeko bidea, bide orri egokiagoa da bidea baino. Azken zatian gaude, zati malkartsu eta zailean, konplikatuan, karrera guztiz apurtu eta aletzen den zati horretan”



DANI BLANCO

Ramon Etxezarreta *

Lizarra Garaziko hitzarmen deitu hura ia tatxarik gabeko prozedura zen. Edozeinek du zilegi gehiengo demokratiko baten osatzea eta gehiengo horrekin gobernatzea dago-kion hura, abertzaleek barne. Ez ordea gobernu ahalmenak eta jarduerak sinesmen eta sineskeria bilakaraztea, honetarako zilegitasunik ez du inork inoiz..

Ia tatxarik gabeko hura kamuts geratu zen gizartera hedatu eta bertan sustraiak botatzeko garaian. Kontrarioak franko eta indartsuak agertu zitzaizkion eta euskal nazionalistak ez zeuden, borroka armatuari egindakoez gain, kritikak onartzeko eta entzuteko. Bakean, armarik eta bonba leherketarik gabe, zero akatseko alternatiba ziren eta beren ameskeria guztiak, zirela zirenaren bizkar, gauzatzeko prest zeuden. Ez abertzaleok, euskal nazionalista ez garenok esan nahi da, ez genuen bazterkeria politiko handiagorik bizi ia inoiz, diktaduran salbu. Edozeinek esaten zuen ez zegoela ados edo ez zela euretakoa! Kostata, eta kalte handiak eraginda, egin zuen porrot. Euren artean ardura nagusia nork izan zuen eztabaidatzen denbora ugari igaro dute geroztik nazionalistek baina auziak oraindik auzi jarraitzen du.

Ikasgaiak ikasia zirudien eta biolentziarik ezean bakarrik adostu zezakeela euskal gizarteak, euskal ez abertzaleek barne oraingoan, aldarrikatu zen, esanaz bezala, alegia, ordura arteko porrota ETA-ren gaiztakeriagatik zela. Garbi zirudien ez biolentzia eragileekin eta ez hauei aurre egin nahi ez zien agente politikoeekin ez zegoela aurrerabide

eta aukera politikorik. Lehendabiziko asesinatotan bestelakorik ikusi zen arte. Ibarretxek ez zekien beste diskurtso eta politikarik egiten. Ez abertzaleak Euskal Herriaren eta euskaltasun mota ororen kontrako ikusten ditu eta beraiekin ez du egin nahi ez eta biziraupenerako gutxienekoa izan daitekeen traturik ere. Orain zazpi mila eta bostehun urteko euskalduna, abertzalea edo ez abertzalea, aberkideago sentitzen du Laudioko bere portalean bizi den botoemaile popularra edo sozialista baino. Zer esanik ez Potosin aurki daitekeen hemeretzigarren potositar belaunaldiko edozein Patxikorena edo Joanikotegi ere aberkideago dituela.

Ezker abertzaleak trufaz eman zizkion hiru lau iskanbilarako botorekin, halako esperpentoari akordioa deituz Espainiako Gorteetara joan zen Madrilerara eta han lortu zuen bere helburu nagusia, Madril deitzen dioten horren ezetza. Frogatuta zegoen azkenean zer ziren Espainia eta espainiarrak. Ikusten? Ezetz esan digute. Ezetz axial axaleko autonomia proiektu honi! Ezetz elkarbizitzari. “Euskadira itzultzen naizenean boto uholde bat eragingo dut”. Pare bat hilabeteko hauteskunde aurrerapena eragin zuten ibarretxetarrek euskal gizarteak bere haserre adieraz zezan eta tamainako irainak erantzun politiko aparteko bat izan zen. Uholdeak bi diputatu kendu zizkion erabaki hari akordio deituzion gehiengo gobernutarrari eta han hasi zen nazionalismoaren hauteskunde gainbehera progresiboa, oraingoz aurtengo martxoko hauteskundetaraino, ez harantzago, iritsi dena.

“Ibarretzek bota du bere azken bigarren hordagoa, Loiolako bileretan egondako mutiko salatariarena eginaz: ETArekin hitz egin zutenek ez dute nirekin hitz egin nahi”

Kosta egiten zaio nazionalismori, bai eta besteoi ere, baina nazionalismoari gehien, hauteskunde galerak onartzea eta aipatu hauteskunde dei horretatik denak irabazi dituen zalantza izpi publikorik ez du adierazi. Hala ere denok dakigu hauteskunde aldia joan, hauteskunde aldia etorri, bototan behera egin duela. Beti aurkitu du aitzakiaren bat galera hori esplikatzeko eta aitzakia, eskuarki, beti bestea izaten da eta ez bere merezimenduz. Merezimendurik gabe irabazten dute besteek eta esplikaziorik gabe galtzen dute eurek.

Bake prozesua, edo delakoa, etorri eta abian jarri zen eta EAJ-PNV eta Eusko Jaurlaritzaren bi rol publikoak bistaratu genituen. Alderdiak txeki zuria luzatu zion Zapaterori eta bere gobernuari, gobernuak, protagonismo galtze patetiko batean murgildurik, nora eza historiko baten gala egiten zuen bitartean. Kontua zen inork baino altuago buila ateratzea, saltsa hartan bera ere nahastuta zegoela eta paper printzipala jokatzeko zuela adierazi nahian. Ibarretxeri Azkarragak eta Madrazok, Egibar eta Karrera izar zituztela, egin zioten koruak ez zeukan parekorik. Goitik eta behetik esan zioten euskal gizarteari bakea, izatez bakea, ona zela baina ez zela lorik hartu behar, ez zela narkotiko bat eta euskal gizartea zoriontsuegi, irribarretsuegi, ikusten zutela bake hurbil horren aurrean, gauzak horrela zer izango ote zen gero benetako bakea, berbena bat? Zer arraio egin beharko zen orduan gatazka deitu horrekin.

Ezker abertzalea ikusi zen politikagintzan, hegemoniak ikusi ziren auzitan, formula politiko berriak ez hain urrutiko perspektiban. Urduritasu-

nak gain hartu zien gure autonomia erkidegoko agintariei eta ETari hezurretarainoko beldurra sartu zitzaion, akabo honena! Gizartea bere erabakien jabe egitera zetorren, pistola eta lehergailurik gabe.

Egindako eta egin gabeko bidea, bide orri egokiago da bai, bide baino. Azken zatian gaude, zati malkartsu eta zailean, konplikatuan, karrera guztiz apurtu eta aletzen den zati horretan. Herri honetako oraindainoko liderra, lider berezko eta bakarra zirudien PNVren bi ikusmolde elkar zaintzen, guztiongandik tira beharrean. Sozialisten beldur, hauek hauteskundeak irabazita balituzte bezala ari direla salatuz eta duela hilabete pare bat izan direnak izan ez balira bezala. Ibarretzek bota du bere azken bigarren hordagoa, Loiolako bileretan egondako mutiko salatariarena eginaz: ETArekin hitz egin zutenek ez dute nirekin hitz egin nahi.


Punta motza du azken bide orri honek eta berekin batera Ibarretzek, gauza bat ahazten baitu bizi dugun demokrazia arautu honetan. Besteek, beste guztiek, nahi dutenek, euskaldunak eta ez euskaldunak zilegitasun demokratiko osoa dutela ezetz, ezetz, eta ezetz esateko. Gainera horrela egiten dutenek gure herria hau, Euskal Herria, errespetatu egiten dute, ezetz diotenen iritzi demagogiko guztien gaintetik, eta hauteskundetara ezetz, ezetz eta ezetz esanaz aurkeztu zirela. Beraz planteatzen zaiguna desadostasuna areagotzeko proposamena da adostasuna lantzeko baino, alegia, Ibarretxe jaunaren enegarren hauteskunde programa errakitikoa bat gehiago, ezetza jasotzen duenean bere alderdia erdibituko duena, berriro arrakasta izango duela esango duena, en fin...

Bien bitartean ezker abertzalea berriro tiro hotsak izututa posizio akritikoetara erretiratu da politikagintzatik. Ez dakit udazken aldera zein jeltkideen aldeko izango den, kontsultaren aldeko edo PNVk esaten duenaren aldeko.

** PSE-EEko kidea eta Donostiako Udal Kultur delegatua.*

Konpromisoak eta leialtasunak

"Iazko irailean iragarritako bide-orriak konpromiso haiek sakonki aldatu zituen. Arrazoirik gabe, eta gainera, larriagoa dena, arrazoirik eman gabe. Hau da, aldaketa hura ezkutatu egin da"



DANI BLANCO

Xabier Gurrutxaga*

J oan zen irailean bide-orria aurkeztu zue-
nean Eusko Legebiltzarrean, Ibarretxe
lehendakariari ez zitzaion burutik pasa ere
egin sei hilabete beranduago Kongresurako hau-
teskundeetan Euskadin eman ziren emaitzak
eman zitezkeenik. Hau da, hipotesi txarrenean ere
ez zuen aurreikusi hirukoa osatzen duten parti-
duen boto kopurua baino gehiago lor zezakeenik
alderdi sozialistak, berak bakarrik. Bide-orriaren
diseinuak ez zuen kontuan hartu zein izan zite-
keen, hura martxan jartzerakoan, hirukoa osatzen
duten alderdi politiko bakoitzaren barne egoera
eta osasuna. Beste modu batera esanda, martxoar-
en 9ko hauteskundeen ondoren hasi izan balitz
bide-orriaren inguruko gogoeta Ajuria Enean, ziur
naiz gauzak beste modu batera ikusiko zirateke-
la eta zenbait erabaki ez zela hartuko zuhurtziaren
galbahetik pasa baino lehen.

Lehenik eta behin esan beharra dago Ibarretxeren
bide-orriak ezintasun eta zailtasun handiak dituela
bere horretan aurrera atera dadin. Eta gainera, ezinta-
sun eta zailtasun horien artean handienak ez dira
Zapateroren eskutik datozenak, euskal gizartean ber-
tan sumatzen diren mugetatik datozenak baizik. Egia
da Zapateroren ezezkoak ez dizkiola gauzak erraz-
ten, baina bide-orriaren zortea kasu horretan ere
hobea litzateke baldin eta hura Euskadin lortutako
kontsentsuaren fruitua balitz. Izan ere, euskal gatazka
politikoak lehenik eta behin zerbait eskatzen badu,
hori geure arteko gutxieneko adostasun edo akordio
nazional bat da. Gure korapilo politikoa askatu nahi
badugu, lehenik geure artean jarri behar gara ados,
zeren begi-bistakoa da euskaldunen artean gatazkari
buruz eta horren irteerari buruz ikuspuntu bat baino
gehiago daudela. Egia da euskal gatazka politikoak
baduela baita kanpo dimentsio bat ere, Estatuarekin



lotzen gaituena, hitz egin eta negoziatu beharrekoa, dudarik gabe.

Bi dimentsio horiek nabarmenak direnez, estrategia kontua da bietatik nori eman garrantzi nagusia eta lehentasuna. Ibarretxe lehendakariak bi presidenteen arteko balizko akordioari eman dio garrantzia eta lehentasuna, bigarren mailan utziz Euskadi mailako akordioa. Lehendakariak dio emandako hitza bete egingo duela edo bestela "etxera" doala; aditzera eman ez duela hartutako konpromisoa aldatuko. Konpromisoekiko leialtasun joko horretan sartuz, ona litzateke zenbait datu gogora ekartzea eta aztertzea ia ez ote dituen lehendakariak bide-orri berri honekin aurrekoan jarrita zituen zenbait konpromiso alboratu. Legegintzaldi honetan hartutako lehen konpromisoa hirukoaren gobernu programan hartu zuen eta inbestidurako diskurtsoan berretsi. Orduan hartu zuen konpromisoak ez zuen zerikusi handirik izako irailan hartutakoarekin.

Lehenbiziko bide-orri haren mami nagusia Euskadin, alderdi politiko guztien arteko elkarrizketaren bidez, Normalizazio Politikorako eta Elkarbizitzarako Akordioa lortzea zen. Hori zen lehentasuna, eta gero, hura lortuz gero, Eusko Legebiltzarrari baimena eskatzea, indarkeriarik gabe eta bazterkeria

"Ibarretxek Zapaterorekin lortu nahi zuen akordioa ez da gauzatuko, eta laster batean begi bistara jarriko zaizkigun datu berriek erakutsiko diguten antzera, aurrez pentsatutako kontsulta ere ez da bere horretan egingo. Beraz, benetan denei gehien inporta zaiena hurrengo hauteskunde autonomikoen kontua izango da"

politikorik gabeko eszenatoki batean, herri kontsulta egiteko, bertan herritarrek berretsi zezaten alderdiek Euskadin lortutako akordio politikoa. Hau da, herri kontsultak helburu eta zentzu argia zuen: lortutako akordioa berrestea. Akordiorik ezean herri kontsultak ez zuen zentzurik konpromiso hartan. Hura zen hartutako konpromisoa eta haiek ziren lehentasun estrategikoak. Begi bistakoa da iazko irailan iragarritako bide-orriak konpromiso haiek sakonki aldatu zituela. Nire iritziz, arrazoirik gabe, eta gainera, larriagoa dena, arrazoirik eman gabe. Hau da, aldaketa hura ezkutatu egin da. Baina gauzak ez dira horrela. Gobernu konpromiso hura aldatuz, lehendakariak estrategiaz aldatu zuen goitik behera. Lehen proposamenean protagonismoa euskal alderdien eta euskal instituzioen esku uzten bazen, bigarren goan, ulertezina bada ere, Zapateroren esku gelditzen zen elkarrizketa politikoren giltza, gero denborak ongi aski erakutsi digun bezala. Aldaketa estrategiko hori hanka-sartze politiko larria da, abertzaletasunaren indar politiko eta soziala ahuldu besterik ez du egiten eta okerragoa dena, irteerarik gabeko bidezidorrera garamatza.

Izan ere, bistara ditugun datu guztiek erakusten diguten bezala, Ibarretxek Espainiako presidentearekin lortu nahi zuen akordiorik ez da gauzatuko, eta laster batean begi bistara jarriko zaizkigun datu berriek erakutsiko diguten antzera, aurrez pentsatutako herri-kontsulta ere ez da bere horretan egingo. Beraz, hemendik aurrera kontu nagusia, benetan denei gehien inporta zaiena hurrengo hauteskunde autonomikoen kontua izango da. Horiatarra modurik egokienean iritea da guztiei gehien axola zaiena. Joko horretan ari dira gustura sozialistak, batez ere lehendakariak aitzakia eman zientetik. Joko horretan sartu beharko dute ezinbestean jeltzaleek, hartu behar dituzten erabakiak hartu eta gero. Eta erabaki multzo horretan erabaki beharko dute nola atera lehendakaria eta bere bide-orria sartuta dauden zuloetik. Erabaki beharko dute zer egin berriro ere gobernu programan eta inbestidurako saioan hartutako konpromisoak alderdiaren betebeharrak nagusi bihurtu daitezkeen. Hau da, nola berreskuratu konpromiso haiekiko leialtasuna.

Hauteskunde kanpaina luze bat

“EAJk badaki zer egin behar duen
berriro ere PSEri botoetan gailentzeko:
euskal hauteslegoa polarizatu
eta Madrilekin aurkaritza areagotu”



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Ander Iturriotz *

Ez zeukan erraz Ibarretxe lehendakariak aspaldian agindu zuen galdeketarekin. Bere alderdiak ez zekien oso ongi zer egin, bate-tik; Espainiako Legebiltzarrerako azken hauteskun-deetako emaitza kaxkarrek noraezean erorarazi eta beldurturik utzi dute EAJ: bere barneko sektore ezberdinen artean liskarrak itxi gabe daudela eraku-tsi da, egun hauetan, eta diseinu bat baino gehiago zeudela, galdeketaren alde zuzen-zuzenean egin dutenekin hasi eta, inongo lotsarik gabe, PSE-EEre-kin Gobernu-akordio bat gauzatzea proposatu dute-nekin buka; izan ere, EAEko botere esparruak gal zitzaketela pentsatze hutsak oso urduri jarri baititu, batez ere, Bizkaiko aparatuko pragmatistak. Jose Luis Bilbaok egin zuen proposamen paktistak –berriro ere, Imazekin bezala, Urkullu bigarren lerrotik aritu da–, ordea, izugarrizko arriskua sortzen zuen: aldez aurretik indartzen zuen PSEren estrate-gia, aldez aurretik adierazten zuen PSE ikusten zela garaile eta, hori, botere autonomikoa erabakitzeko hauteskunde-borroka baten inguruabarrean, oso-oso gaizki hasia zatekeen. Jose Luis Bilbaok hanka-sartze izugarria egin zuela edonork aitortuko du, bere alderdian bertan egin den bezalaxe.

Baina, lehen urduritasunak lasaituz joan dira eta EAJ botereari eusteko estrategiari lotu zaio buru-belarri. Badaki zer egin behar duen berriro ere PSEri botoetan gailentzeko: beti egin duena egingo du, euskal hauteslegoa polarizatu eta Madrilekin aurkaritza areagotu, jakin baitaki, estrategia horrekin Madrilen morroi agertzen dela beti PSE.

Aurrekaririk badago, egon ere. Duela urte batzuk, 1994an hain zuzen, PSEk, orain bezala, hauteskunde estataletan susperraldi handia izan zuen eta euskal nazionalismoak emaitza txarrak lortu –klabeak ere errepikatu egin ziren: bipolarizazioa, buruz-buruko lehen telebista-etzabaidak, eta abstentzio estatalistaren aktibazioa– eta emai-



JON URBE / ARGAZKI PRESS

“Zapaterok, azkenik, elkarrizketa onartu dienean, Loiolako oinarriak eramango dituztela adierazi dute alde zurretik jeltzaleek hedabideetan, jendeak jakin dezan zertan ari diren, PSOEek alde zurretik erantzun dezan, eman dezan jeltzaleei hain errentagarria zaien ezezko biribila”

tza haien proiektio matematikoa –politikan okerra den proiektioa– eginez, Ramón Jaúregui Lehendakartzarako hautagai izendatu zuten –esan dezagun, bidenabar, Patxi López ez dela, inondik ere, Jaúregui–. Oso kanpaina irudimentsua egin zuten sozialistek: postnazionalismoa aireratu zuten, lehenik, ahidura munduan, eta, gero, vasquismoa.

EAJk ezin hobeki jakin zuen aurrekanpaina sendo hari aurre egiten, ordea: konfrontamendugiroa aprobetxatu zuten beren agenda inposatze-ko; transferentziak, Europaren konfigurazioa, Senatuaren izaera, autonomismoaren gailenpena eta ETArekiko negoziazio politikoa izan ziren gai distiratsua kanpaina hartan. Emaitzak ere izango dituzte gogoan jeltzaleek: EAJk 70.000 boto irabazi zituen eta PSEk, hauteskundeak ezin irabazirik, modu oso esanguratsuan, *vasquismoa* baztertu eta Nicolás Redondoren tesiak onartu zituen.

Izan ere, konfrontazio klase horrek emaitza onak eman dizkio beti EAJri: polarizatu egiten ditu euskal hautesleak, aktibatu egiten du abstentzio abertzalea, botu pragmatikoa erakartzen du –ezker abertzaleari eta EAri joan ahal zaiona–. Eta horretan ari dira, orain ere. Lehenbizikoz, Zapateroren mezuaren perbertsioa salatu dute eta, beraien aurkaria Madrilen izendatuz, Lópezen

lidergo-ahalmena ahuldu. Behin eta berriro eskatu diote elkarrizketa bat Zapaterori, erakutsirik, beraiek direla Zapaterok ez daukan talantearen jabe; eta kontua ez da arrastaka bezala agertzea, limosnatxo bat eskatuz bezala, kontua *agertzea* da, tenpus politiko berriaren kudeatzaile eta protagonista agertzea.

Zapaterok, azkenik, elkarrizketa onartu dienean, Loiolako oinarriak eramango dituztela adierazi dute alde zurretik hedabideetan, jendeak jakin dezan zertan ari diren, PSOEek alde zurretik erantzun dezan, eman dezan jeltzaleei hain errentagarria zaien ezezko biribila –aurreko espainiar Legebiltzarreko ezezko hura sinbolikoki ere agertuko da euskal oroimen sinbolikoan–; eta, bide batez, ezker abertzaleari ere egiten zaio keinu bat, ezker abertzaleko botoemaile batzuei esan nahi da, hain zuzen, botere autonomikoa kinka larrian egon denean, beti arrakasta EAJri eskaini dion sektore –agian abstentzionista– horri, zehazki. Eta, Ibarretxe Planarekin, berdin: PSOEek nolabait onarpena eskaintzen badie, hori dute irabazita, beren agenda politikoa inposatuko du EAJk berriro; eta, ez badie onartzen, konfrontazioa kudeatuko dute eta, handik berehala, hauteskundeak, ongi girotuta, protagonismoa irabazita, zuntz nazionalista astinduta eta konfrontazioaren alde legitimoan jarrita. Hauteskunde kanpaina oso ongi diseinatuta daukate. Handik gora, handik behera, kolapsoa. Eta, bien bitartean, nire lagun batek esaten duenez, proiektuak eta proposamenak erre.

** EHUko Soziologia irakaslea*

LARRUN pentsamendu aldizkaria

ARGIArekin batera banatzen da

Koordinatzailea: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.